



Asteleheneko otoitza

Gonbidapen bat



BIDEOA:

<http://www.quierover.org/watch.php?vid=6a4a7a653>

TESTUA:

Mateo 22,1-14:

Jesus berriro parabola bidez hitz egiten hasi zitzaion: "Jainkoaren erregetzarekin, bere semearen ezteiak ospatzen zituen erregearekin bezala gertatzen da. Bidali zituen morroiak gonbidatuei dei egitera. Baina haiek ez zuten etorri nahi izan. Berriro beste morroi batzuk bidali zituen, mandatu honekin: 'Esaiezue gonbidatuei: Hara, gertu daukat bazkaria; hilak ditut zegenak eta zekor gizenduak, dena dago prest. Zatozte ezteietara'. Baina gonbidatuek ez zuten jaramonik egin: bata bere sorora joan zen, bestea bere negozioetara, eta gainerakoek, morroiei heldurik, irainez bete eta hil egin zituzten Sumindu egin zen erregea eta, soldaduak bidaliz, hil egin zituen giza hiltzaile haiek eta su eman herriari. Gero, bere morroiei esan zien: 'Ezteiak prest daude, baina gonbidatuak ez ziren gai. Zoazte, bada, bidegurutzeetara eta deitu ezteietara aurkitu ahala guztiak'. Atera ziren morroiak bideetara eta aurkituriko guztiak bildu zituzten, on nahiz gaizto. Eztei-gela bazkaltiarrez bete zen".

OTOITZA:

Jauna, konturatzen naiz eskatzen didagun guztia "bai" bat besterik ez dela, konfiantzagako ekintza soil bat, horrela zuk nigatik egiten duzun hauetako fruituak eman ditzan nire bizitzan.

Ez dut hain lanpetuta egon nahi nire bizimoduarekin, nire egitasmo eta proiektuekin, nire senide, lagun eta ezagunekin non ez bainaiz konturatzen Zu nirekin zaudela, beste inor baino hurbilago.

Ez dut itsu izan nahi zure eskuetatik datozen maitasun keinuekin, ezta zure ahotik datozen maitasun hitzekin ere. Nire ondoan ibiltzen garenean ikusi nahi zaitut eta hitz egiten didagunean entzun. (Henry Nouwen)



Astearteko otoitza



Jauna, noiz ikusi zintugun?

Y aquí, comprando mascarillas de colores de Ágata Ruiz de la Prada.

Se me queda corta la vida, para poder entender al mundo.



AGATHA RUIZ DE LA PRADA

TESTUA: Mt. 25, 31-46

“Gose bainintzen eta jaten eman zenidaten; egarri, eta edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoen, eta jantzi egin ninduzuen; gaixo, eta bisitatu; kartzelan, eta ikustera etorri”.

Orduan, zintzoek esango diote:

“Jauna, baina noiz aurkitu zintugun goseak eta jaten eman genizun, edo egarriak eta edaten eman? Noiz aurkitu zintugun arrotz eta etxean hartu, edo larrugorri aurkitu eta jantzi? Noiz aurkitu zintugun gaixo edo kartzelan eta ikustera joan?”

Eta erregeak erantzungo die:

“Benetan diotsuet: Nire seniderik txikien hauetako edozeini egin zeniotena, neuri egin zenidaten”.

OTOITZA:

Zergatik? Jauna, zergatik?

Zergatik errugabeen mina? Zergatik heriotza goiztiarra?

Zergatik maitasunerako eta bigitzarako jaiotzen bagara, batzuetan bakardadeak eta eguneroko heriotza txikiek kosk egiten digute?

Zergatik ondasunak eta ametsak aurretik eramaten dituzten urakana eta ekaitza?

Zergatik gaizkia giza bihotzean, eta batzuetan hondamena inguruan?

Zergatik?

Lagun iezadazu Joben sendotasuna izaten. Bera, ulertzeinaren aurrean konfiantza erakusten duen eta leial mantentzen den hori. Lagun iezadazu ulertzen bigitza ez dela etengabeko ongizatearen promes bat, baizik eta eguneroko gertakarien segida bat, batzuetan festa bat dena, baina beste batzuetan oztupoz eta oinagez beterik dagoena.

Lagun iezadazu gauza onak ospatzen eta bigitza zailtzen zaidanean, amorrurik eta samintasunik gabe negar egiten.



Astearteko otoitza



Kerkatzen gaituena



GALDERA: Eta zuri, zer da munduan gehien kezkatzen zaituena?

Zer eskatzen diozu Jainkoari?

OTOITZA:

Eskatu bakea eta samurtasuna emango zaizgue.
Eskatu maitasuna eta izenak emango zaizkizue.
Eskatu misioa eta bide bat emango zaizgue.
Eskatu elkartzea eta hitzak emango zaizkizue.
Eskatu eskola eta Maisu bat emango zaizgue.
Eskatu justizia eta kausak emango zaizkizue.
Eskatu egia eta galderak emango zaizkizue.
Eskatu boterea eta eskuoihal eta balde bat emango zaizkizue.
Eskatu atsedena eta lagun bat emango zaizgue.
Eskatu adorea eta gurutze bat emango zaizgue.
Eskatu pasioa eta ekaitzak emango zaizkizue.
Eskatu poza eta dohatsutasuna emango zaizgue.
Eskatu jakinduria eta memoria emango zaizgue.
Eskatu indarra eta itxaropena emango zaizgue.
Eskatu askatasuna eta Berpizkundea emango zaizgue.

(José María Rodríguez Olaizola)



Osteguneko otoitza



“Elkartasun” -pandemia izan dadila

BIDEOA:

https://www.youtube.com/watch?v=q4wX_6Ah1Fk

TESTUA: Mk. 6, 34-42

Une hartan, jendetza handia ikusi zuen Jesusek. Errukitu egin zitzaion, artzain gabeko ardiak bezala baitzebiltzan, eta irakasten hasi zitzaion luze eta zabal. Berandutu zuelarik, ikasleek hurbildu eta esan zioten: “Toki hau oso urruti dago eta orduak aurrera doaz. Bidal itzazu, inguruko baserri eta auzoetara joan eta jatekoa eros dezaten”. Jesusek erantzun zien: “Eman zeuek jaten”. Haiek, orduan: “Berrehun denarioren ogia erostera joango ote gara, bada, hauei jaten emateko?”. Baina Jesusek esan zien: “Zenbat ogi dituzue? Ea, ikusi”. Begiratu, eta erantzun zioten: “Bost ogi, eta bi arrain ere bai”.

OTOITZA:

Haur bat bezala.

Ustekabeko ekaitza ur-jauzi magiko bihurtzea.

Lokatzezko galletak prestatzea eta hiru trasterekin denda bat muntatzea.

Irribarre egitea, mila jolas, etxe bat eta musu bat gogorarazten dizkizun ahots ezagunak lasaituta. Atsedean hartzea, ahul, besarkada seguru batean.

Lotsarik gabe, lokartu arte negar-zotinka aritzea, bihar berriro garaiezin altxatze.

Atsedetik gabe galdetzea, erantzunen egarri. Kuxkuxeatzea, urduri, bagter guztietan, eta orduan mundua aurkitzea, bestea, Jainko bat... eta oso ozen

oihukatzea, eta argizariekin margotzea eta familiari esatea, eta hazten hastea...

egun urrun batean ekaitza, lokatzezko galleta, paperezko denda, jolasaren, etxearen eta musuaren ahots ezagun hori, etengabeko galdera eta bagter ezezaguna gogoratze.

Eta orduan munduak deitzen digu, bestea, beti inguruan, eta Jainko horrek berriz ere erakartzen zaitu eta oso ozen oihukatzea, argizariekin margotzea, beldurrik gabe esatera bidaltzen zaitu, haur bat bezala berriz ere.

(José María R. Olaizola, SJ)



Fruituak ematea

BIDEOA: <http://www.quierover.org/watch.php?uid=de5b9823f>

TESTUA: Mateo (21,33-43):

Garai horretan, Jesusek apaizburuei eta herriko zaharrei esan zien: “Entzun beste parabola hau: Behin batean, nagusi batek mahastia landatu zuen eta harresiz inguratu; lurrean dolarea egin eta mahastigainaren dorrea eraiki zuen. Gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen. Mahatsa biltzeko garaia iritsi zenean, bere morroiak bidali zigkien nekazariei, fruitutik zegokion partea jasotzera. Baina nekazariak morroiak hartu eta bata jo, bestea hil eta bestea harrikatu egin zituzten. Berrito beste morroi batzuk bidali zigkien, aurrekoan baino gehiago, eta haiei ere beste hainbeste egin zieten. Azkenik, bere semea bidali zien, honela pentsatuz: ‘Neure semeari bederen izango diote begirune’. Nekazariak, ordea, semea ikustean, esan zuten beren artean: ‘Oinordekoa duk! Hil dezagun eta egin gaitezen mahastiaren jabe’. Hartu, mahastitik kanpora bota eta hil egin zuten.” Jesusek galdetu zien: “Zer egingo ote die nekazari horiei mahastijabeak itzultzean?”.

Erantzun zioten: “Gupidarik gabe hilko ditu eta bere garaian fruitua emango



dieten beste nekazari batzuen esku utziko du mahastia”.

Jesusek ezan zien: “Ez al duzue irakurri Liburu Santuak dioena: ‘Etxegileek bagtertutako harria giltzarri gertatu da. Jaunak egin du hori, gure begien harrigarri?’ Horregatik diotsuet: Jainkoaren erreinua zuei kendu eta fruitua aterako dion herri bati emango zaio”.

Hausnarketa:

Jainkoak nire esku utzi duena lantzen ari naiz?

Zer fruitu eskain ditzaket?